# Agur yaunak

Euzkeldun zintzo, agur dagitzut,
Anai-agurra biotzez...
Eta nor nazan yakin nai bozu'
«Ekin» daukotzut izenez.

«Jaungoiko-Zale»n semetxoa naz
Bere ordezko nayatzu,
Goiko-Egia zabaldu nayan
Gaste kemenaz ta sutsu.

Ziñestea dot biderakusle,
Euskera nire yantzia,
Ta elburutzat' euskeldun danak
Egi-bidez zuzentzea.

Gure aberri maite onetan,
Guzur-zaleak ugari
Gaiztakeria zabaltzen dabiz.
¡Euron kaltez naz gudari!

Orrexek dira nitzat etsayak,
Enparauak adizkide
Egi-zaleak diran orontzat'
Poi geznari ta lankide.

Kistar euskeldun zintzo danakaz
nai neunkez artu-emonak,
Eurok dira-ta niretzat beti
adizkiderik onenak.

Izango ete da bat bakarra be
etsaitzat artuko naunik?...
Yaungoiko eta Euskerarenak
nire etsayak, bakarrik.

Eguzki antzez eurontzat bere
Izango ditut izpiak
Aleginduaz argitu daizan
Kistar-Ikasti egiak. (?)

Euskeldun ingi orori bere'
Anai-agur samurrenak
dagitzuez gaur zeuon sendiko
anayatxo txikienak.

Maitasun batez alkartu eta
Yauna-n laguntzaz batean'
Egia nai-non zabaldu daigun...
«EKIN...» garaitu artean...

**Gabirel**

# AGUR YAUNAK

Euzkeldun zintzo, agur dágitzut,
Anai-agurra bíotzez...
Eta nor nazan yakin nai bozu'
«Ekin» dáukotzut izenez.

«Jaungoiko-Zale»n semetxoa náz
Bere ordezko náyatzu,
Goiko-Egia zabaldu nayan
Gaste kemenaz ta sutsu.

Ziñestea dót biderakusle,
Euskera niré yantzia,
Ta elburutzat' euskeldun danak
Egi-bidez zuzentzea.

Gure aberri maite onetan,
Guzur-zaleak ugari
Gaiztakeria zabaltzen dábiz.
¡Euron kaltez náz gudari!

Ez dá gugaitik kurutza baten
    bizitza emon ebana?
Ez dá ba Yesus umeak gustiz
    maite-maite zituana?
Ama, zér dala kendu dauskue
    gure Yaun maite laztana?....

Amak zer esan ez ekián ta,
Begietako malkoak
    izán zirean semearentzat
    aman itzen ordezkoak:

«Ene semetxu maite, kutuna,
Gizon gaizto bai gaiztoak
    kendú dituez ikastolatik
    Gure Yauna'ren Kurutzak
Eusko errian ori be yasan?....
Ez eté gara lotsatzen
    gure asaba ziñestetsuen
    seme garala esaten?....

Orrexek díra nitzat etsayak,
Enparauak adizkide
Egi-zaleak diran orontzat'
Poz geznari ta lankide.

Kistar euskeldun zintzo danakaz
nái neunkez artu-emonak, (pág. 295-cc-2.ª)
Eurok díra-ta niretzat beti
adizkiderik onenak.

Izango eté da bat bakarra be
etsaitzat artuko naunik?...
Yaungoiko eta Euskerarenák (íd. íd.-1.ª)
nire etsayak, bakarrik.

Eguzki antzez eurontzat bere
Izango dítut izpiak
Aleginduaz argitu daizan
Kistar-Ikasti egiak. (?)

Euskeldun ingi orori bere'
Anai-agur samurrenak
dágitzuez gaur zeuon sendiko
anayatxo txikienak.

Maitasun batez alkartú eta
Yauna-n laguntzaz batean'
Egia nai-non zabaldu dáigun.....
«EKIN...» garaitu artean.....